

HAUTAZKO KREDITUAK AITORTZEARI BURUZKO ARAUTEGIA, EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEKOA

Graduko ikasketetan kredituak transferitzeko eta aitortzeko arautegia (Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartua; 2012/06/19ko EHAA; 119. zk.) da Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko ikastegietan graduko ikasketa ofizialetan kredituak aitortzeko eskarien arloan ezartzen dena. Arautegiak honakoa dio 2.1 artikuluan:

Gai honetan, UPV/EHUko organo hauek dute eskumena: errektorea edo hark eskuordeturiko errektoreordea, eta ikastegiko Akademia Batzordea.

Araudiarekin bat etorrira, Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Batzarrak, **2018ko maiatzaren 10ean** egindako bileran, Akademia Antolakuntzako Batzordearen proposamenari jarraituz, onartu zuen ondoko hautazko kredituak aitor daitezkeela:

- Kultur eta kirol ekintzak, elkartasuneko eta lankidetzako jarduerak eta ikasleen ordezkaritza lanak.
- Curriculumari ez dagozkion kanpo praktika akademikoak, kasuan kasuko ikasketa planak hala aurreikusten duenean.
- Lan esperientzia eta esperientzia profesionala (egiaztatua).
- Lanbide Heziketako goi mailako teknikarien tituluak.
- Beste titulu ez ofizial batzuk lortzera bideratutako unibertsitateko ikasketetan egindako kredituen bidez.
- Unibertsitateko ikasketa ofizialetan lortutako kredituak, irakasgaiak aitortzeko erabili ez direnak.

Gogoan izan, gehienez ere, hautazko 24 ECTS aitor daitezkeela.

Oro har, irakasgaia izango da aitorpenerako erabiliko den unitatea, baina hautazkoen kasuan, kreditu kopuruen arabera egin ahal izango da, oinarri hartuta gainditutako kredituen bidez lortzen diren gaitasunak eta ezagutza, eta egindako gainontzeko jarduerak.

Izapideak eta epeak

Hautazko kredituak aitortzeko eskariak, eta eskariei erantsi beharreko agiriak, ikastegiko idazkaritzan aurkeztu behar dira, eskola egutegian adierazitako epeetan. Egutegia kasuan kasuko eskolako web gunean argitaratzen da.

Ikastegiko idazkari akademikoak, edo Akademia Antolakuntzako Apibatzordeko buruak, ikasleak aurkeztutako dokumentazioa ikusita, kredituak onartzeko ageriko erabakia emango du, kreditu horiek ikaslearen espedientean sar daitezela. Horretarako, prezio publikoak ordaindu beharko ditu aurretik ikasleak.

Baldintzak

Fakultatean ematen diren graduko ikasketen planak kontuan hartuta, ikastegiko Akademia Antolakuntzako Batzordeak erabaki du:

- 2019/20 ikasturtetik aurrera, hautazko kredituak aitortzeko eskariak fakultatearen ataletan aurkeztu ahal izango dira: Araban, Gipuzkoan eta Elkanon. Ikasleak oinarritzko gaitetan gaindituta izan beharko ditu gutxienez 54 kreditua, eta 50 kreditu oinarritzko eta nahitaezkoen artean. Fakultatearen egoitzan, Sarrikon, 2018/19 ikasturtean hasiko da ezartzen irizpide hau.

- Kanpoko praktiken edo/eta laneko esperientzia edo esperientzia profesionalaren kasuan, ez bada blokea lortzen irakasgai baten baliokide den kreditu kopurura heldu ez delako ikaslea, aukera egongo da kredituak osatzeko kultur eta kirol ekintzak, elkartasuneko eta lankidetzako jarduerak eta ikasleen ordezkaritza lanak eginda.

Hautazko kreditu horiek ez dute kalifikaziorik izango, eta, beraz, ez dira kontuan hartuko espedientearen barematzerakoan.

Erabakia

Eskariak ebatzi eta erabakiaren berri emateko, hiru hilabeteko epea ezarriko da, eskaria kasuan kasuko idazkaritzan aurkezten den egunetik kontatzen hasita.

Ikastegiko Akademia Antolakuntzako Batzordeak emandako erabakiaren kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio errektoreari, erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean.

Eskaria egin eta hilabeteko epean ez bada jaso ageriko erabakirik, ikasleak bere eskaria administrazio isiltasunez ezetsi egin dela ulertuko du.

KREDITUAK AITORTZEA FAKULTATEAK ONARTUTAKO PRESTAKUNTZARAKO KULTUR EKINTZEN BIDEZ

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko ikastegiak edo sailek antolatutako prestakuntzako kultur ekintzen bidez kredituak aitortzeko (ikastaroak, mintegiak, biltzarrak...), ekintza horiek Akademia Antolakuntzako Batzordearen edo Akademia Antolakuntzako Azpibatzordearen oniritzia izan behar dute.

Horrela, ikastegiko sailen batek, irakasleek edo ikasleen elkarteek prestakuntzako kultur ekintzak antolatu nahi badituzte eta horien bidez hautazko kredituak aitortzeko aukera eman, honako agiriak aurkeztu beharko dituzte Akademia Antolakuntzako Batzordean edo Akademia Antolakuntzako Azpibatzordean:

- Eskari orria, zehaztuta: ordu kopurua, noiz emango den eta kreditu kopuruaren proposamena.
- Jarduera programa
- Bertaratzea edo parte hartzea kontrolatzeko sistema
- Saileko zuzendariaren oniritzia edo Ikasleen dekanordearen edo ataleko koordinatzailearen abala, ikasleen elkartearen kasuan.

Jardueraren ordu kopuruaren eta aitortuko diren kredituen arteko baliokitza: 1 kreditu 25 orduren pareko, UPV/EHUko arautegiari jarraituz.

Jarduera horietarako, gutxienez 0,25 kreditu proposatuko dira, eta, gehienez, 1,5 kreditu.

Jarduera bera (ikastaroa, mintegia, jardunaldia) ikasturte batean baino gehiagotan eskaintzen denean, ikasleak behin baino ezin izango du egin kredituak aitortzeko eskaria, eta, edozelan ere, gehienez, 1,5 kreditu lortu ahal izango ditu.

Eskaria ikastegiko akademia batzordeari edo ataleko azpibatzordeari aurkeztu behar zaio, gutxien dela jarduera egiten hasi baino hilabete lehenago, eta eskaraia 15 egunean ebatzi beharko da. Antolatzaileari idatziz emango zaio ebazpenaren berri, eta, era berean, egoki izanez gero, Akademia Antolakuntzako Batzorderi ere jakinaraziko zaio.

Akademia Antolakuntzako Batzordeak ikastegian antolatzen diren prestakuntzako kultur ekintzen zerrenda osatuko du. Zerrenda etengabe eguneratuko da ekintza berriekin, eta ikastegiko web gunean argitaratuko da.

Akademia batzordeak edo azpibatzordeak ekintza onartu eta ekintza behin eginda, antolatzaileek diploma edo egiaztagiria emango diote ikasleari.

HAUTAZKO KREDITUAK AITORTZEA CURRICULUMARI EZ DAGOZKION KANPO PRAKTIKA AKADEMIKOEN BIDEZ

UPV/EHUko tituluaren ikasketa planean aurreikusita egonez gero, curriculumetik kanpo egindako praktiken bidez ikasleari hautazko kredituak aitortu ahal izango zaizkio.

Gogoan izan, curriculumetik kanpoko praktiken bidez, gehienez ere, hautazko 18 ECTS aitor daitezkeela.

1. Praktikak UPV/EHUK beste erakunde batekin sinatutako hezkuntza lankidetzako hitzarmenaren babesean egiten direnean:

Praktikak bukatzean, ikastegiak ziurtagiria egingo du bertan zehaztuta zein jarduera egin duen ikasleak eta zenbat ordu izan diren.

2. Praktikak UPV/EHUK beste erakunde batekin sinatutako hezkuntza lankidetzako hitzarmen baten babesik gabe egiten direnean:

Ikastegiko Akademia Antolakuntzako Azpibatzenordeak hautazko kredituak aitortzeko eskaria onartu ahal izango du baldintza hauek betetzen badira:

- Praktikak izen handiko erakunde pribatu edo publikoan egin badira.
- Ez dira curriculumetik kanpoko praktikatzat hartuko enpresa edo erakunde batean, pribatuan zein publikoan, lan harreman baten bidez egiten diren jarduerak.
- **Ibilbide dualeko** ikasleek ez dute kredituak aitortzeko aukerarik izango erakundean aldeztu aurretik egindako lan jarduerengatik edo praktikengatik.
Donostiako atalean hautazko kredituak baliozkotu ahal izango dira ibilbide horretan egin beharreko ordu kopurua baino ordu gehiago egin denean. Soberako ordu horien baliokidetasuna: 1 kreditu 25 orduren pareko, eta, gehienez ere, 6 kreditu.
- Aurkeztu beharreko dokumentuak:
 - Praktiken oinarri den hitzarmena
 - Praktiken azken txostena edo egiaztagiria, enpresak edo erakundeak emana. Bertan ageri behar dira: ikaslearen izen-abizenak eta NAN zk.; praktiken nondik norakoak; praktiken aldia eta ordu kopurua.
 - Ikasleak egindako azken memoria, praktiketan egin dituen lanak azalduta.

KREDITUAK AITORTZEA LANEKO ESPERIENTZIAGATIK EDO ESPERIENTZIA PROFESIONALAGATIK

Graduko ikasketetan kredituak transferitzeko eta aitortzeko arautegiak honakoa dio 9. artikuluan:

"Barneratutako gaitasun eta ezagutzen arteko egokitzapena aintzat hartuta, aitorgarriak izan daitezke titulu ez-ofizialak eskuratzeko aukera eskaintzen duten unibertsitate-ikasketetan egindako kredituak, baita egiaztatutako lan-esperientzia nahiz esperientzia profesionala ere, baldin eta esperientzia horrek zerikusia badu egin nahi den titularen berezko gaitasunekin.

Akademia Antolakuntzako Batzordeak ebatziko ditu kredituak aitortzeko eskariak, eta zenbat kreditu zehaztuko du. Horretarako, aztertuko du laneko esperientziak edo esperientzia profesionalak zerikusirik daukan graduko gaitasunekin, oinarri hartuta laneko kategoria eta egindako lanak, eta, betiere, bat etorrita graduko memorian enpresetako praktiketarako zehaztutako gaitasunekin.

Baliokidetasuna honakoa da: **1 kreditu = lanean, arduraldi osoan, emandako 90 egun; gehienez ere, hautazko 24 kreditu.**

Ibilbide dualeko ikasleek ez dute kredituak aitortzeko aukerarik izango erakundean aldeztu aurretik egindako lan jarduerengatik edo praktikengatik.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- **Eskari orria, behar bezala beteta.**
- **Lan kontratuaren fotokopia.**

- **Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria (lan bizitza) edo Langile Autonomoen Araubide Berezia egindako kotizazio aldiaren ziurtagiria.**
- **Enpresaren ziurtagiria** honakoak zehaztuta: lanpostua, esperientzia urteak arlo profesionalean eta lanean. Bestalde, egindako lanak ere azalduta ageri behar dira, bai eta garatutako gaitasunak ere.
- **Ikaslearen memoria egiaztatzeko** gaitasunak eta lanean izandako esperientziaren nondik norakoak.

HAUTAZKO KREDITUAK AITORTZEA IRAKASGAIK AITORTZEKO ERABILI EZ DIREN UNIBERTSITATEKO IKASKETA OFIZIALETAN LORTUTAKO KREDITUEN BIDEZ

Hautazko kredituak aitortu ahal izango dira lehengik egindako beste ikasketa batzuetako irakasgaien bidez, baldin eta baliozkotu ez badira. Bide horretatik, hau da, irakasgaiak aitortzeko erabili ez diren unibertsitateko ikasketa ofizialetan lortutako kredituen bidez, gehienez ere hautazko 12 ECTS aitortu ahal izango dira.

Jatorrizko unibertsitatean egindako gradu ikasketak edo lizentziaturak ikasleak fakultate honetan egiten ari den ekonomia eta enpresa arloko berberak edo antzekoak badira, Akademia Antolamenduko Azpibatzerdeek honako aintzatespen irizpide hau aplikatuko dute:

$$\text{Min } \{12, 50\%A\}$$

A= baliozkotu gabeko irakasgai guztien kreditu kopurua

Zalantzarik badago, edo egindako graduak ez badauka loturarik ekonomia edo enpresaren arloarekin, edo fakultateko atal desberdinen arteko transitoa bada, Akademia Antolakuntzako Batzordeak aztertuko du eskaria.

Lan taldea eratu behar da barneko prozedura hau garatzeko eta fakultateko atalen eta egoitzaren arteko joan etorriak direnean gestioa errazteko.

Salbuespen gisa, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean EAZ gradua ikasten ari diren ikasleei fakultatearen edozein unitatetan aitortuko zaizkie hautazko kreditu generiko gisa, gainditu eta baliozkotu gabeko hautazko irakasgaietan lortutako kreditu guztiak, gehien direla, graduak gutzira irakasgai hautazkoetan dauzkan 48 kredituetara arte.